

ZUBH GINTZA

2017-2018 IKASTURTEA



2016-2017

ERRIGORAgO

lazko ikasturtean ERRIGORAgO joateko asmoa azaldu genuen, ERRIGORAgO izateko gonbitea luzatu genuen. Bai Euskararen eremuan, bai ekoizpenaren zein merkaturatze bide berrien eremuan eta bai azularen, herrigintza zein elkarlanaren eremuan amets berriak marrazteari ekin genion.

Kanpainetako eskaintza bera inoiz baino anitzagoa eta koloretsuagoa izan zen. Udazkeneko #EUSKARARIPuzka Zuria eta Beltzarekin eta udaberriko #ESKUTIKeskura lerro Berdea (ekologikoa) eta lerro Marroiarekin (konbentzionala) heldu ziren.

22 ekoizle aritu ginen elkarlanean. Bai kopuruari dagokionez eta bai inplikazioari dagokionez haragorako pausua! Elaboratzaileen artean zein nekazari eta elaboratzaileen artean elkarlan berriak sortu ziren.

Nekazal ekoizpena sustatzea ere suposatzen ari da ibilbide hau. Nekazari berriak eta nekazal lur berriak bilatu eta aurkitzen ibili ginen. Hala ere eskaeren tamainako zainzuri ekologikorik bildu ezinean gelditu ginen udaberrian... Aurrerako lur berriak prestatzen ari dira!

Nafarroa hegoaldeko euskaltzaleok amets berriak amesteko grina ere azaleratu genuen. Etiketatik ha-

rago adibidez, euskararentzat espazio berriak irabazteko eta euskaltzaleok elkarlan berri eta gaurkotuak martxan jartzeko ametsak marrazteari ekin genion.

Eta, batez ere, ehunka ERRIGORAgile eta ERRIGORAZale aritu ginen bizipozez eta fin-fin (udaberriko kanpainan, eskaera guztiak aldi berean egiteko formulazio aldaketa efizientzi eta arrakasta handiz burutu genuen!). Beti bezala baina are gehiago eskuorriak banatzen, eskari zerrendak osatzen, internetez klik eta klik eskariak egiten, sare sozialetan eragiten, kutzak prestatzen eta banatzen, kobrantzak egiten, norbere eta lagunen eskariak furgonetetan kargatzen, ... ERRIGORAgO joateko ilusioa kutsatzen!

Eta aldi berean jabetu gara amets berrietarako pauso horiek eman ahala, halako ametsak errealitate bihurtzeko ERRIGORA bera egitasmo bezala egokitu beharra dela. Nafarroa hegoaldean euskarak tresna estrategiko berriak gauzatzeko; merkaturatze bide berriak gauzatzeko; ekoizpen-ekoizle berriak finkatzeko, lurralde eta eremuen arteko harremanak trinkotzeko;... zubi berriak behar direla. Patxada eta denbora behar dela, zereginak eta erantzukizuna konpartitzeko ariketa eta definizioak behar direla, lan anitz eta zabaletarako eskuak eta zehaztasunetarako esku kualifikatuak bildu behar direla.

#EUSKARARIPuzka2016

14.000 SASKI

175.000€

EUSKALGINTZARA

#ESKUTIKeskura2017

86.500L OLIO

208.000

ONTZI KONTSERBA

2017-2018

ZUBIGINTZA

ZUBIAK ERAIKI ETA GURUTZATU DITUGU

ERRIGORAREN ibilian beraz, zubiak eraiki ditugu Euskal herrien artean. Ablitas eta Arrasate lotu ditugu, edo Ainhize eta Tuteran. Baita Ea eta Gasteiz edo Oiartzun eta Bilbo ere. Euskal herritarren arteko zubiak eraiki ditugu, auzolanean eta bizipozez.

Zubiak eraiki ditugu kontzeptu ustez apartekoen eta bereizitako eremu-tako ekintzaileen artean. Lurra eta euskara lotu ditugu. Auzolana eta elikadura-burujabetza. Nekazariak eta euskaltzaleak. Ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuak.

Zubiak eraiki ditugu ekintza isolatuen artean. Uzta biltzea, orburuak erostea, zerrenda bat osatzea, txio bat partekatzea, Vianako ikastolari diru-ekarpina egitea... Ekintza txiki bakoitza osotasunaren parte ezinbesteko bihurtu dugu. Keinu bakoitzari balio eraldatzailea erantsi diogu. Grinen arteko zubiak eraiki ditugu: norbera bere kezka, ardua edo irrikatik helduta, denon artean indar biderkatzaile izugarri

bati eman diogu aterabidea, zubiz zubi.

Finean, ametsetatik errealitatera igarotzeko zubiak eraiki eta gurutzatu ditugu. Eta amesteari uzten ez diogun artean, zubigintzan segiko dugu. Zubigintzan segi nahi dugu.

AMETS BERRIETARAKO ZUBI BERRIAK MARRAZ DITZAGUN

«Zatoz ERRIGORAGO, ERRIGORAGO gaitezen» esanez, amets berriak irudikatzen, zerumuga berriak amestera gonbidatu zintugun iaz. Orain, balizkoa baliozko egiten hasi nahi dugu, berandu baino lehen ERRIGORAREN amets berrietatik errealitate berrietara eramango gaituzten zubiak gurutzatu ahal izateko. ERRIGORA berri batera eramango gaituzten zubiak eraiki nahi ditugu. Amets berriek zubi berriak behar baitituzte. Berriak eta sendoak. Amildegian ez erortzeko.

Zubi berriak eraiki nahi ditugu Nafarroa hegoaldeko



euskaltzaleen artean, egunen batean euskaraz bizitzeko egitasmo berriak martxan jartzeko ametsa egia bihur dadin.

Zubi berriak eraiki nahi ditugu ekoizle, kontsumitzaile, kontsumo-talde, dendari, jantoki eta abarren artean, egunen batean kanpainetatik harago merkaturatze bide berriak zabaltzeko ametsa egia bihur dadin.

Zubi berriak eraiki nahi ditugu nekazari eta elaboratzaileen artean, egunen batean ekoizpen-eremu eta ekoizpen-eredu berriak sustatzeko ametsa egia bihur dadin.

Zubi berriak eraiki nahi ditugu herria egin eta eraldatzen ari garen eragileen artean, egunen batean auzolan berriei bide egiteko ametsa egia bihur dadin. Zubi berriak eraiki nahi ditugu zu bi izan zaitezten. Gu hamaika izan gaitezten. Errigorago gaitezten.

Segi dezagun zubigintzan. Eraikitako zubiak zeharkatzen segi dezagun. Bai. Baina has gaitezten amets berrien neurriko zubi berriak marrazten. Gero eraikitzeko. Ondoren gurutzatzeko. Errealitate berriak ditugu zain beste aldean.

2017-2018 IKASTURTEA: ZUBIGINTZA URTEA

Hauxe dugu beraz ikasturteko erronka: zubiak gurutzatzen segitzea eta zubi berriak marraztea.

- Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka izango dugu udazkenean: Auzolan berezkoa, berezia, berebizikoa. (jarraian dator eranskina)
- Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura udaberrian. Berrero ere eskaera aldi bakarra eta banaketa (eta ordainketa) bi kolpetan izango da.
- Zubi berriak marraztea: Ikasturte osoan zehar hartuko dugu patxada eta astia ERRIGORAgile eta ERRIGORAzaleon artean hausnartu eta erabakiak hartzeko. ERRIGORAgoko joateko amets berri haiek errealitate bihurtzeko ze zubi behar ditugun hausnartu eta marrazteko. Hortik etorriko dira ERRIGORA bera, elkarlan eta erantzunkizun konpartituak, erronken neurri eta denborak,... berrasmatu eta egokitzeak.



ERANSKINA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzzle

Umiaren bitartek
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzzle
azararen 16ra

HERRILANA

ERRI GORA
www.eri.gora.eus

aek

HERRILANA

HERRILANA

Herrilana ekitea da. Egitea. Eraikitzea.

Ez da ahal dugun galdetzea; herrilana ahalduntzea da. Ez da lo egitea; herrilana amets egitea da. Ez da praktiketan aritzea; herrilana ariketa praktikoa da.

Herrilana zubigintza da. Zeharkakotasuna. Aniztasuna. Elkartasuna.

Ez dauka jaberik; herrilana burujabe izatea da. Ez dauka hierarkiarik; herrilana bihurri izatea da. Ez dauka preziorik; herrilanak balio handia dauka.

Herrilana herria egitea da. Sarea. Lagunartea. Komunitatea.

Ez da marka bat; herrilanak marka uzten du. Ez da itxura-aldatze ariketa bat; herrilanak eraldatu egiten du. Ez da aisialdi-pack bat; herrilanak bizipoza ematen du.

Herrilana auzolana da. Elkarlanean ikastola bat eraikitzea. Haurreskola bat. Euskaltegi bat. Errigora bera.

HERRILANA

Udazkenetako #EUSKARARIpuzka auzolan erraldoia dela esan dugu behin baino gehiagotan. Hemendik aurrera herrilan erraldoia esan beharko genuke. Zer da bestela hain lurralde, esparru, ahal eta grina desberdinetako ehunka lagun aritzea propaganda lanetan eskariak bildu, prestatu eta banaketan. Aurten ere hala ariko gara:

- Aek, Sortzen eta Ikastolen Elkartea elkarlanean.
- Beste hainbat elkarte, eragile eta erakunde ere bai.
- Eta batez ere sarekideak, herriz herri kanpainen

bihotza garen norbanakook.

Biribiltzen dugun herrilan horren zainketa, biderkatze eta kontakizunean arreta berezia jarriko dugu. Horrela:

- Kanpaina garaian, herri eta esparru desberdinetan presente eta bistan egoteko erraztasun eta bitartekoak izango dira.
- Ablitasgo herrilana are anitzagoa, koloretsuagoa, politagoa izango da. Eskaerak biltzeko egunetan izango da.

ESKAINTZA

Aurten ere ZURIA eta BELTZA. Beltza Errigoraren hastapenetakoaren harira, Zuria berrikuntzak biltzen dituena.

Ekoizleak 25 guztira. Bada familia!

- Ablitasgo kooperatiba
- Biosasun (Discastillo)
- La casa del aceite (Cascante)
- Bardea (San Isidro del Pinar)
- Ekolo (Arroitz)
- Monasterio de Cascante
- El Molinero (Arroitz)
- Urrutia (Uxue)
- Alcaravan (Arguedas)
- Martinelli (Beraiain)
- Azpea (Irunberri)
- Lezaun (Lakar)
- Mendiko (Oibar)
- Bagordi (Andosilla)
- Almanaque (Andosilla)
- El Agricultor (Lerin)
- La Churta (Allo)
- Ebron (San Adrian)
- El Escolar (San Adrian)
- Iturri (Arroitz)
- Maria Jesus (Ablitas)
- Pedroluis (Lodosa)
- Larrinaga (Urantzia)
- Gobeiaberrri (Lodosa)



DIRU-EKARPENA

Nafarroa hegoaldeko **euskararen normalizazioak hauspoa behar du**, eta kanpaina hauspo ederra izan da azken urteotan. Aurten ere, guztion ahaleginari esker, hala izango da:

- **Erakusleihoa eta indarberritzea** izango da Nafarroa hegoaldeko euskaltzaleentzat.
- **Euskalgintzaren proiektuen behar ekonomiko handiak arintzeko** izango da. Lodosa, Tuter eta Vianako ikastolen biziraupenerako, Erriberako Aek indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko.

- **ERRIGORago joateko amets berriak** marrazten hasi ginen euskararentzako ere. Euskaldunak sortzeaz gain euskaraz bizitzeko espazioak irabazteko egitasmoak, euskara plazaratzeko eta jarrera baikorrak areagotzeko ekimenak eta euskaltzaleok batera aritu eta harremanak sendotzeko ohiturak abiatzeaz ari ginen. Ideia mamituz doa baina zubiak marraztu beharra eskatzen du oraindik. Horretarako ere izango da aurtengo diru-ekarpena.

EGUTEGIA

- URRIAN ZEHAR **prestaketa lanak**
 - UURRIAK 26 **kanpainaren hasiera**
- AZAROAK 2, 3 eta 4 **Ablitasgo auzolana**
 - AZAROAK 14 **eskaerak jasotzeko azken eguna**
- AZAROAK 23 - ABENDUAK 3 **saskien banaketa**
 - ABENDUAK 4-14 **ordainketak**

KANPAINA
BANAKETA
ORDAINKETA

URRIA						
23	24	25	26	27	28	29
AZAROA						
30	31	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	1	2	3
ABENDUA						
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17